

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OYÓN-OIONGO UDALA

#### Behin betiko onespena ematea bide publikoa mahaiz, aulkiz eta mahai-aulkiz okupatzea arautzen duen ordenantzari

Bide publikoa mahaiz, aulkiz eta mahai-aulkiz okupatzea arautzen duen ordenantza aldatzeko espedientea jendurrean egon da 30 egunez 03000 zenbakiko iragarkia ALHAOn argitaratu (2023ko urriaren 20an, 124. zk.) eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

Ez da inolako erreklamazio edo oharrik aurkeztu bide publikoa mahaiz, aulkiz eta mahai-aulkiz okupatzea arautzen duen ordenantza aldatzeko erabakiaren aurka, eta, beraz, behin betiko onetsita geratzen da.

Ordenantza indarrean jarriko da testu osoa argitaratu ondoren, Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegokoak udal erabakiaren jakinarazpena jasotzen dutenetik 15 egun igarotzen direnean. Nolanahi ere, ez da hasiko aplikatzen 2024ko urtarrilaren 1a baino lehen.

2024ko urtarrilaren 1ean indarrean dauden zerga ordenantzen testu bategina Udalaren web atarian aztertu ahal izango da. Erreferentzia: Bo231212B.

Oyón-Oion, 2023ko abenduaren 12a

Alkatea

JOSÉ MANUEL VILLANUEVA GUTIÉRREZ

#### Zerga ordenantzen aldaketaren testu osoa

##### 6. artikulua. Terrazak ixteko ordutegia

1. Terrazetako jarduera ixteko edo eteteko ordutegia terraza zerbitzua ematen duen negozioak jendurreko ikuskizunen eta jolas jardueren ordutegiei buruzko araudia aplikatzearen ondorioz duen itxiera ordutegi bera izango da.

2. Artikulu honetako 1. apartatuan adierazitako ordutegia betetakoan, terrazaren titularrak ordenantza honetako 8. artikuluan xedatutakoa bete beharko du.

3. Terrazek zamalanak oztopatuz gero, udalak terraza horren ordutegia murriztu egin dezake eta zamalanen araberakoa jarri.

4. Udalak bide publikotik terrazako altzari guztiak kentzeko aginduko du beharrezkoa bada, adibidez, kultur jarduerengatik, jarduera zibil edo sozialengatik, edo hirigintza aldatzeagatik, araudiengatik, pasabidea arautzeko edo baimena emateko inguruabarrak aldatu direlako.

##### 7. artikulua. Publizitatea jartzeko debekua

1. Altzariak eta gainerako elementuek gehiegi nabarmentzen ez den publizitatea izan ahalko dute, baita establezimenduaren izena eta logotipoa ere.

2. Elementu osagarriak ere publizitatea izan ahalko dute, hau da, zaborrontziek, loreontziek, giroak bereiztekoak, oina duten hautsontziek edo antzekoek, erabiltzen diren gainerako altzarien ezaugarrietara egokitu beharko dute.

**8. artikulua. Altzariak bide publikotik kentzea**

Establezimendua itxi beharreko orduaren aurreko 30 minutuetan, instalazioaren titularrak bide publikotik kendu behar ditu altzari guztiak, eta establezimenduaren barruan batuta geratu behar dira establezimendua jendearentzat itxita dagoen bitartean. Edo, bestela, altzariak batu eta giltzarrapo batekin lotu behar ditu beste norbaitek kentzeko ordua eta gero bide publikoan altzariak berriz jarri ezin dituela bermatzeko.

Bide publikoa mahaiz eta aulkiz okupatzeko lizentzia duen titularrak horiek okupatzen duten eremua garbitu behar du.